

Zein zerga ordaindu behar dizkiot Ogasunari zura saltzean?

Gehientzat bizitzan gutxitan gertatzen da eta batzuentzat, beharbada, behin bakarrik. Urteetako lana, duela hamarkada batzuetako inbertsioa, aspaldian landatu genituen zuhaitzak edo gure aurrekoek jarri zituztenak aprobetxatzeko unea da. Gure basoko egurra saltzeko garaia. Dirua 2020an eskuratu baduzu, aurten, 2021ean, Ogasunari kontuak eman beharko dizkiozu, apiriletik aurrera Errentaren kanpaina hasten denean. Garrantzitsua da gauzak ondo egitea, arazoak saihestu nahi baditugu. Horra jakin behar duzun guztia.

+++ Jarduera ekonomikoa da. Ogasunean alta eman behar duzu. Lehenengo urratsa jarduera ekonomiko gisa alta emanda gaudela ziurtatzea da. Baso-jarduerari aplikatu dakiokeen zuzeneko jarduera-metodoaren modalitate sinplifikatu bat dago. Baliteke zuetako batzuk dagoeneko Ogasunean alta emanda egotea zuen basogintzako jarduera ekonomikoagatik, azken 20 urteetan egurra saldu baduzue. Egiazta ezazue.

Hala ez bada, gestoria baten bidez edo gure kontura egin behar dugu, zentsu-aitorpenaren 036 inprimakia betez eta Gipuzkoako Ogasunean aurkeztuz. Inprimakia Ogasunaren webgunetik bertatik deskargatu dezakegu, edo estanko batean erosi. Alta emanda egoteak aukera emango du kasu horietarako aurreikusitako zerga-kenkariei heltzeko. Bi lauki izan beharko dituzu kontuan: 100 (zuzeneko zenbatespen sinplifikatua) eta 113 (nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia) zenbakidunak. Lauki horietan BAI aukera markatu beharko dugu. Edozein gestorian egin diezazkigukete izapideak. Zalantzarik izanez gero, elkartearekin harremanetan jartzeko esan diezaiokezue zuen aholkulariari. Dei gaitzabela.

+++ Noiz arte dut epea? Errenta aitortpena aurkeztu aurretik egin behar duzu. Gogoratu Errenta kanpaina apirila eta ekaina bitartean ireki ohi dela egoera normalean. Nolanahi ere, komenigarria izan daiteke aurtengo otsaila amaitu baino lehen egitea. Aurrerago azalduko dizugu zergatik.



+++ Zenbat ordaindu beharko diot Ogasunari? Adibide praktiko bat: 20.000 euro. Jakin behar duzu tratua 20.000 eurokoa bada ez dituzula 20.000 euroak kobratuko. Zergatik? Hasteko, erosleak zure zatiaren % 2ko atxikipena aplikatu duelako PFEZren kontzeptuan eta Ogasunari aurreratu diolako zure izenean. Hau da, 20.000 euro horietatik 19.600 jasoko dituzu, eta beste 400 euro zure izenean aurreratu dizkio erosleak Ogasunari, eta horrekin kontuak aterako dituzu zure errenta-aitorpenean.

+++ Faktura eta 10T. Jakin behar duzu, halaber, erosleak txeke soila ematen badizu ere, faktura bat dagoela. Erosleak zure izenean jaulki du eta Ogasunak bere esku dauka. Faktura horretan agertzen diren 20.000 euroak zerga-oinarriaren batura gehi zurari aplikatzen zaion % 12ko BEZa izango dira. BEZa konpentsatzailea da, eta, beraz, ez da beharrezkoa BEZaren aitortpena egitea. Ogasunak ez dizu erreklamatu, balioesten baitu BEZaren zenbateko batzuk jasan dituzula basoa urtetan zaintzeagatik. Faktura horretan guztia agertzen da, baita aplikatutako % 2ko atxikipena ere.

Kontuan izan behar duzu errenta-kanpaina hasi baino hilabete lehenago, gutxi gorabehera, erosleak 10T dokumentua bidaliko dizula, hau da, enpresek langileei bidaltzen dieten bera, lortutako etekinak adierazita. Ez badu egiten, eska iezaiozu.

+++ Kalkulagailua eskuan. Jarduera ekonomiko gisa alta emanda zaudenez, fakturaren 20.000 horien % 65eko kenkaria aplikatu ahal izango duzu. Hau da, 20.000 euro horietatik 13.000 ez zaizkizu diru-sarreratzat hartuko, eta gainerako 7.000 euroak zenbatuko dira. Ogasunak kontuan hartzen du zuhaitz horien bizitzan zehar gastu bat egin duzula, eta hori da konpentsatzeko modua. Mozketaren hurrengo bi urteetan espezie autoktono batekin birlandatuko baduzu, aldiz, kenkaria % 75ekoa da; beraz, 20.000 euro horietatik 15.000 salbuetsita geratuko lirатеke eta 5.000 baino ez lirатеke diru-sarreratzat hartuko.

+++ Jabetzaren antzinatasuna. Jabetzaren antzinatasunak hasierako kenkari horiez gain (% 65 edo % 75), beste batzuk aplikatzeko aukera eman diezaguke. Lehen kenkari horrekin, 20.000 eurotik, Ogasunak 7.000 euroko diru-sarrerak hartuko lituzke kontuan kasu gehienetan, eta 5.000 espezie autoktonoak landatzen baditugu. Baina, gainera, lursailaren jabea bazara duela 5 urte baino gehiagotik, kopuru horiei % 50eko kenkari erantsia aplikatuko zaie; beraz, errenta aitortzeko kontuan hartuko lirатеkeen diru-sarrerak 3.500 eta 2.500 eurokoak izango lirатеke, hurrenez hurren. Azken kopuru hori gehituko zaie zure urteko diru-sarrerei, Ogasunari zenbat ordaindu behar diozun zehazteko. Eta gogora ezazu % 2 aurreratu duzula: 400 euro kasu honetan.

% 50eko bigarren murrizketa erantsi hori, lursailaren jabe duela bost urte baino gehiagotik zarelako, % 40ra murrizten da lursailak bi eta bost urte artean badaramatza gure eskuetan; eta desagertu egiten da lursaila erosi berria bada, duela bi urte baino gutxiago.

Lurraren jabe noiztik garen justifikatzeko hainbat modu daude: katastroa, eskriturak, nekazal erregistroak...

+++ Ez dezagun ahaztu azken izapidea. Baina ez dugu oraindik amaitu. 347 inprimakia betetzea falta zaigu. Gure basogintzako mugimenduak 3.000 eurotik gorakoak badira, 347 inprimakia bete behar da. Errenta-aitorpena egin ondoren egin daiteke, hau da, datorren urtean, baina komeni da aurreratzea eta lehenbailehen egitea, otsaila amaitu baino lehen, artikulua honen hasieran aurreratu dizugun bezala.

Diputazioari diru-laguntzarik eskatu behar badiozu, arazoak saihestuko dizkizu. Zergatik? 347 ondorenean bete genezake, bai, 2022ko otsailaren 28ra arte, baina Ogasunarekin izapide hori egiteke izaten jarraituko dugu, eta horrek esan nahi du Ogasunarekin ez gaudela egunean. Dokumentu hau zor diogu. Tramite bat besterik ez da, baina pisatuko zaitu beste laguntza bat eskatu behar baduzu. Ogasunarekin egunean ez dauden eta laguntza bat eskatzeko mugatuta dauden pertsonen ehuneko handi bat arrazoi horrengatik dago, 347a aurkeztu ez dutelako. Aurkezteko epea urte bakoitzeko otsailaren 1etik 28ra bitartekoa da.

Zuk zeuk egin dezakezu, oso dokumentu erraza da. Tratuaren zenbatekoa adierazi besterik ez duzu egin behar, jarri dugun adibidearen kasuan, 20.000 euroak, eta izan ditzakegun beste gastu batzuk adierazi, hala nola birlandatzeagatik ordainduko duzuna, 6.000 euro, adibidez.

+++ Errenta aitortpena egin aurretik landatu behar al dut autoktonoak birpopulatuagatik gehienez ere % 75eko kenkaria jasotzeko? Ez da beharrezkoa, baina Ogasunari adierazi behar diozu espezie autoktonoekin landatzeko konpromisoa hartzen duzula, eta idatzizko konpromiso-dokumentu bat aurkeztu behar duzu % 75eko kenkaria aplikatzeko, % 65ekoa izan beharrean.

OHARRA: elkartean tasazio bat eskatzen duten bazkideei dokumentu bat, gida bat, ematen zaie, jarraitu beharreko pausoekin eta egurra saltzeko zerrei buruzko xehetasunekin.

ASOCIACIÓN DE PROPIETARIOS
FORESTALES DE GIPUZKOA